

## ‘Mugarik gabeko aniztasuna’: hezitzaileei bideratutako tresna baliagarria

- Leizaolak azpimarratu du “hezkuntza gizarte eraldaketarako oinarrizko tresna” dela eta gidak “horretan lagundu” nahi duela
- Olabek “hezkuntza ez formaleko lantaldeak eta hainbat eragilek diskurtsoa osatzeko lana” nabarmendu du

*Bilbon, 2017ko urriaren 4an.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) ‘Mugarik gabeko aniztasuna gida’ aurkeztu dute gaur goizean. Maitane Leizaolak, Bizkaiko Behatokiaren zuzendariak, nabarmendu du “hezkuntza gizarte eraldaketarako oinarrizko tresna” dela. “Gida hezkuntza ez formalean eta astialdian erabiltzeko pentsatua badago ere, edozein hezkuntza testuingurura moldatzeko pentsatua dago”, azpimarratu du.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Multimedia Aretoan egindako agerraldian, Maialen Olabek, EGK-ko presidentek, gidaren egituraketa eta bilakaera azaldu du: “osatzen dugun diskurtsoaren oinarria lan-arloetako lantaldeak dira. Kasu honetan, hezkuntza ez-formalekoak egindako eskaera da abiapuntua, egunerokoan ikusitako gabezien hausnarketatik beharrak topatu zituzten”, laburbildu du Olabek.

Illo horretan, Leizaolak esan du euskarria “gazteek eta gazteentzat” egina dela, aipatutako beharrari erantzuteko “tresna arin eta praktikoa izan dezaten”. Era berean, Bizkaiko Behatokiaren zuzendariak azpimarratu du ‘Mugarik gabeko aniztasuna’ gidak “Diputazioaren zeharkako begirada” duela, prozesu osoan zehar “gazteria- eta gizarte-politikan adituak direnen laguntza izan baita”.

### Aniztasun Funtzionala gizarteratzeko beharra

EGK-ko presidentek adierazi du gidaren hasieran Aniztasun Funtzionalak terminoetan izan duen bilakaera azaldu dela. “Jada konnotazio ezkorra duten terminoak ez dira erabiltzen modu ofizialean, eta hori islatzea oso garrantzitsua zen. Pertsonen barne-hartzea hizkuntzan ere eman behar baita”, eskatu du Olabek. Bestelako aholkuak ere azpimarratu ditu EGK-ko presidentak, besteak beste “Aniztasun Funtzionala duten pertsonekin egunerokoan hitz egiterakoan” kontuan hartu beharrekoak, hezitzaileen lanaren jakitun, “egoera berrien aurrean nola erantzun eta erantzuterakoan zein gaitasun” erabili behar diren azaltzen dutenak edo “gaia modu erakargarrian lantzeko hainbat baliabide eta baita arloko elkarten direktorioa ere”.

Azkenik, Xuban Zubiriak, EGK-ko parte-hartze teknikariak ‘Mugarik gabeko aniztasuna’ gida aurrera eramateko egin diren elkarriketetan identifikatu diren zazpi erronka nagusiak aipatu ditu: “eskubide osoko herritar aktibo modura”, Aniztasun Funtzionala duten pertsonen “gainerako herritarren aukera berberetz” gozatzeko bermea izan behar dutela; Aniztasun Funtzionala duten pertsonekin aritzean askotan “haurren moduan tratatzeko dugun joera

baztertu behar dugula”; “irizgarritasuna eta inklusioa unibertsalak” izan behar direla; “aisialdiaren garrantzia” eta honek ere “inklusioa izan behar duela”; Aniztasuna politika publikoetan “zeharkako balore gisa txertatu” behar dela, “hezitzaileentzako prestakuntza espezifiko” eskaini behar dela eta, azkenik, Aniztasun Funtzionala duten gazteen “datu espezifiko beharra”.

Agerraldiarekin amaitzeko, Leizaolak adierazi du “elkarlanean egiten dugun bigarren gida da, gazteei arduratzen dieten gaiak lantzen ari gara”. Aurrez, martxoan ‘Sexualitatearen Koloreak’ kaleratu zuten eta, aurreratu dutenaren arabera, hirugarrena abenduan ateratzea da asmoa. Era berean, euskarria “euskaraz zein gaztelaniaz” publikatu dela nabarmendu du eta, horrela, “orain arte editatutako lanetan zegoen hutsunea” asebetetzen dela.

‘Mugarik gabeko aniztasuna’ gidaren diskurtsoa egituratzeko oinarria izan dira aniztasun funtzionala duten elkarteak eta baita astialdikoak ere. Honetarako, APDEMA, APNABI. Autismo Bizkaia, ASPACE Bizkaia, ASPACE Gipuzkoa, Atzegi, Bizkaiko Urtxintxa Eskola, EDEKA., E GorraK Gazteak, Euskal Herriko Down Sindromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioa, FEVAPAS, FEVAS. Plenainclusión Euskadi, Gautena, Gorabide eta Juventudes de Unidad Progresista de la ONCE elkarteak elkarriketatu ditugu.